# E R R E R A

## NERE ERRIARI

Donostiatik irten ezkero
Pasaira eldu baño len
Antxe arkitzen da erri jator [bat
Bide zabalen ertzien
Izene ez du euzkalduna, ez,
Bertakoak izanarren
Errera dala esan nai degu
Bertzo onen azkenien.

Iparraldetik Ulia mendi
Eta egoaldetik Altza
Auzo' eder ta alaiagua
Aunditxuago balitza.
Gure zaitzalle Luis deuna [degu
Berengana guk otoitza
Gaurko eguneko loikerletatik
Gorde daigula biotza.

Bolatoki ta pelotaleku
Plazaren onduan ditu
Gure zarraren joku maiteak
Nai genduke gogoratu
Baita ere aurten lenengo al- [diz
Euskal-Jaia emen ospatu
Erreratarrok zaar eta gazte
Egun onetan saiatu

Garagarrillen Amazazpian
Asten dira emengo jaiak
Bost egunien izango dira
Erreran egun alaiak
Pake santuan igaro zagun
Danok gera ba anaiak
Ongi etorriak izango dira
Kanpoko gente guztiak.

Bertso onekin buka nai degu
gure gaurko goraberak;
lana egiteko gogo sutsua
ba-dauka beti Errera'k.
Bertako danai biotzetikan
eman nai degu eskerrak.
Agur guztioi, urrengo arte,
euskaldun maitagarriak!

JOSU-MIREN

## ERRERA 1967'garren urtea erri'ko jaiak

Lenengo aldiz da gure izena ta izana, asteroko ontan asaltzen deguna, ta, asmoa artu degu ez dedillela azken aldiz izan. Aurtengo jaialdietan eta lerro aben bitartez, ezagutu arazlko ditugu erritar guziel aurten gure errlan sortu dn bultzada EUSKAL NORTASUNA iraun dedin.

Erriko jaiak gure errietan garrantzi aundiko egunak izaten dira. Soñu eta zarata besterik ez da entzuten kaleetan, baña askotan jaiak igaro ta gero jakiten dira nolakoak izan diran, alegia zelako "programa" izan dan. Zer gertatzen da-ba erriko jaietan? Gen, geure artean lasai eta zabal asko, mai inguruetan, meza nagusitik irteterakoan dala, edo beste edobeste edozelako tokietan (aitzaki aundirik ez degu bear), urbildu eta alaia-laaai urte guziko artu emanetaz jarraitzen gerala, Ba dirudi kezka guztiak alde batera utzi eta alitasun bizian igarotzen degula geure-geura dan aste au.

Beñere baño geiago oroitzen gera gure ondotik betiko joan diranetzaz; inola ez ba, utsune aundiagoa igertzen ba diegu! Baita ere erritik kanpora arkitzen diran guztiei, agurrik beroenak bialtzen dizkizuegu, ta, elkarrekin ez egon arren, zuen gogoa geurea bezelaxe ementxen egongo da, ezkila (kanpai) ta suzuri (cohete) soñuen artean.

Aurten ba-degu zertaz jarraitzeko gai berri bat edo, obeto esateko gai zar bat. EUSKERA: Euskal izkuntzari buruz gure errlaren jardunak erri osoak jakin bear ditu.

Len esan bezela, lenengo aldiz biltzen gera atadi ontan (Zeruko Argia); gure aurrak lenengo aldiz ezagutu dute zer dan uskal ikastola; aundi eta txikieri, lenengo aldiz egokitu zaie euskera ikasteko arratseko saioak; eta azkenez, gaiz ki ez banaiz, baita ere lenengo aldiz ntolatu da egun osoko euskaljaia.

Ba dira ERRERA onta nnortasun (personalidad) aundiko erritarrak gertakizun au sortu eta osa-



tu dutenak. Eskerrik beroenak opa dizkizuegu. Jardun au ez du talde berezi baten lana izan bear, erri osoarena baizik, bertako eta erbesteko guztien lana bear luke izan.

ERRERA erria bezela nola sortu dan ez goaz orain aitatzera beste baterako, eta lan orrek bear duan arduraz nai genuke osatu. Baña danon begien aurrean dago ERRERA egunen da aundiagoa eta sakabarnutua dagola.

Lan-tokiz inguratu da, au gauza onta da gizartearen aurrerapenetarako; etxez josi-josita arkitzen da, orrek esan nai du berriz, bizitzeko ere, era ba-dagola; baño... ekin diogun gure nortasunari, ez dezagula ito, ez gaitezen aastu gure Gipuzkoa'ko zatitxo bat dala, bertan bizi geranok ez degula eskubiderik erri onen euskal-kutsua galerazteko, "borratzeko". Kanpotik datoztenak sartu ditzagun gure oituretan, ez gaitezen geu itzuli berenetan. Ez degu urrutira joan bear zein alegiri jarraitu bear diogun. Orra or Donosti. Ez du galtzen eta ez galduko ere bere nortasuna, Euskalerriko uri bakarra izango da noski Euskera ain goitua erabiltzen duna.

Gu auzokuok alegindu gaitezen ortan. Euskera'ren deadarrari ez entzungor egin. Ezta batzuek diñoelako "modan" jarri dala eta... ¡ez! Euskera'ri entzungor egiten dien euskotarrek, nor bere burua lepotik erantzi eta, beste edonor batena jantziko balu bezela litzake.

Errera'tar guztiok igaro ditzagun al degun ondoena erriko jaiak San Luis'en babesean eta...

Uda'ren mugan
eguzkia ba dirudi
ez dula nai azaldu
Zezu goi ederrean,
Baño, baezpaere...
ogeitabatean
urreratzen ba zaigu
erriko jaietan,
Naiz ta bazterrak
kixkaltzen etorri
ez beintzat
gure asmo onak
galerasten utzi.

ERRERA'TAR BAT

MERZERIA
"PEPI"
Puntuzko salgaiak ta soñekogintza
Av. Jose Elosegi, 15. Urrut. 51 5 35
HERRERA

NOVEDADES ANTOLIN
JOSKINDEGIA
Urrutizkiña: 51 5 34
E R R E R A - Donostia

Lantegian ba zaudez
Estu eta larri
Biar dezun burnia
Eziñik arki
Erneatu gaberik
Lasai erabaki
Urrutizkiñarekin
HERRERA-ra dei
Galtzairu ta burni
Aukerako neurri
Oso edo zati
Gertuta egoki
OXIGRAF - ek daukala
Egon ziurki.
OXIGRAF
Urr. 51866 - 57365
HERRERA DONOSTI

confort R® tv
SAIL BEREZIAK:
etxe - tresna - elektrikoak
antena jartzeak
T.V.'ren maxura konponketak
auto - irratiak
HERRERA - Donosti - ERRENDARI
Confort R/TV'k EZ DU EGITEN BAKARRIK SALDU,
BAITA GERO ERE SAINDU

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL


Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián
Banen baneko aziyak
Ongarri ta abono
Belar Zuloak
Erosi
au
etc